

## **PRENTSA OHARRA**

### ***EUSKAL KAZETARIEK MANU LEGUINECHE SARITU DUTE BERAREN BILAKAERAGATIK***

**Asociación de Periodistas Vascos - Euskal Kazetarien Elkartearen** Zuzendaritza Batzordearen aho bateko erabakiz, **LEHENENGO KAZETARITZA SARIAren irabazlea Manu Leguineche** da, kazetaria, gerrako berriemailea, Colpisa eta Fax Press agentzien sortzailea, idazlea, bidaiaria.

Sari honen bidez, EKE-APVk Manu Leguinechek kazetaritza onaren bidean egindako ibilbidea aitortu eta txalotzen du, lur honek eman dituen kazetaririk onenetako baten lan profesional paregabea goraipatuz. Izan ere, Manu Leguineche gizon jakintsu, apal, samurra eta adoretua da, eta egiaren alde aritu da bere zeregin guztietan.

Kazetari-belaunaldi askoren erreferentzia eta eredu izanik, eta Kapuscinskik kazetari onak definitzen dituen moduan, Leguineche *pertsona ona* da, bere kazetaritza-etikaren berezko elkartasun zentzuaren jabe, sentikorra eta gupidatsua besteekin, hots, jendearekin eta errealitatearekin, eta, beraz, baztertuekin.

Saria emateko ekitaldia Bilbon izango da ekainaren lehenengo hamabostaldian.

## **BIOGRAFIA**

**Manuel Leguineche** (Arratzu, Gernika, 1941) gure kazetaritzak eman dituen erreportari jatorrenetako bat da. Bidaiari amorratua –“bidaiatzea apal izateko, zeure burua ezagutzeko eta besteak ezagutzeko”-, idazlea eta gerrako berriemailea, karrera hau bokaziozkoa eta iraupen luzekoa dela uste du.

Colpisa eta Fax Press berri-agentzien sortzailea, gure garaiko kazetari nagusietako bat da, eta gai izan da estilo berezi bat sortzeko, oso pertsonala eta publikoarentzat biziki erakargarria. Mundu osoan izandako bizipenak kontatzen dituzten testu ugariaren egilea da. Haren liburuek genero berri baten oinarria jarri dute gure herrian, kazetaritza literarioaren maisuen maisu bihurtzeraino.

Baliabide gutxirekin eta grina handiarekin, Manu Leguinechek kazetaritza ona egin du bere bizitza osoan, eta horri esker kalitatezko erreferente bilakatu da beraren osteko belaunaldientzat. Eremu guztietan aritu da, hainbat gairi buruz idatzi baitu: kirola, musa, pertsona ospetsuak, gertaera historikoak, lekuak, gerrak... Bere obra ugarien artean, azpimarratzekoak dira honako hauek: “La ley del mus” (1992), “Los años de la infamia: crónica de la II Guerra Mundial” (1995), “Adiós, Hong-Kong” (1996), “Annual, 1921”

(1997), “Yo pondré la guerra” (1998), “Apocalipsis Mao: una visión de la nueva China” (1999), “La felicidad de la tierra” (1999), “Hotel Nirvana” (2001), “Recordad Pearl Harbour” (2001), “Gibraltar” (2002), “Los ojos de la guerra” (2002), “Madrid de menú” (2002), “Madre Volga” (Seix Barral, 2003), “El último explorador” (Seix Barral, 2004), “El viaje prodigioso” (2005) eta “El club de los faltos de cariño” (2007). Bere obragatik jaso dituen sarien artean, honako hauek aipatu daitezke: “Premio Nacional de Periodismo”, “Pluma de Oro”, “Cirilo Rodríguez”, “Godó”, “Julio Camba” eta “Ortega y Gasset” sariak.

Gaur egun, gertaerak denbora luzeagoz aztertzea gustatzen zaiola aitortzen du, bertan jadanik egon denaren ikuspegiarekin. Mundua liluratzen du, eta, dioenez, “Belendizko herritar bakarti eta herabeti bat da, lasaitasuna, isiltasuna, eta landa-eremuekiko harremana maite dituen. Herri txikien giroak pertsonak askatu eta elkarrengana hurbiltzen ditu. Lurreko zoriona da”.

Bidaia etengabeko bizipena izan da berarentzat, hainbestearino non, bere esanetan, bidaia biderik laburrena baita norberaren burua ezagutzeko eta munduari buelta emateko. “Amets bat paseatzera eramateko bidaiatzen naiz, errutina eta estuasunetatik ihes egiteko. Batzuetan, errazagoa da jakitea zeretik ihes egiten dugun zer bilatzen dugun baino. Norberak baditu bere arrazoiak. Funtsezkoena umorea ez galtzea da. Ezta maitasuna ere, maitasunik izanez gero”.

Harreman sakona gordetzen du bere jatorriarekin, eta bere herrira –Gernikatik gertuzergatik itzultzen ez den galdetzen zaionean, hauxe erantzuten du: “gertuago egoteko. Sendoa eta ahula naiz. Batzuetan, nire buruarengandik gertuago egoteko alde egiten dut, eta horixe gertatzen zait neure herriarekin ere”.